

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Foru Gobernuak 230.000 euro emango ditu atzerriko unibertsitateetan ikasteko beken osagarri gisa

Eskaerak aurkezteko epea apirilaren 19an amaituko da.

Martes, 18 de marzo de 2014

Nafarroako Gobernuak, aurtengo ikasturtean, ikasleen atzerriko unibertsitateetan ikasteko jasotzen ditueten beken osagarri gisa 230.000 euro emango ditu. Laguntza Nafarroako ikastetxeetako ikasleentzat dira, baita Espainiako beste unibertsitate batzuetan ikasten ari diren nafarrentzat ere, eta beste erakunde batzuek, esate baterako, Europar Batasunak edo Espainiako Gobernuak ematen dituzten beken osagarri gisa emango dira.

Laguntzen zenbatekoa 90 eurokoa da behar bezala justifikatutako egonaldiko hilabete bakoitzeko, bederatzi hilabetez gehienez. Espediente akademikoaren arabera esleituko dira, partida agortu arte, eta egonaldiaren amaieran ordainduko da, helburuko unibertsitateak sinatutako agiaztagiria aurkeztu ondoren. Ez da laguntzarik emango egonaldia hiru hilbete baino gutxiagokoa denean.

Interesa dutenek heldu den apirilaren 19ra arteko epea dute eskaerak [Nafarroako Gobernuko erregistroetako batean](#), Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen [30/1992 Legearen](#) 38.4 artikuluan jasotako edozein bulegotan edo, Internet bidez, Foru Gobernuko [zerbitzuen katalogoan](#) aurkezteko.

Martxoaren 18ko 53. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen [93/2014 Ebazpenaren](#) arabera, laguntza jaso ahal izango dute estatuo unibertsitate bateko lehen edo bigarren ziklo edo gradua egiteko matrikulatuta daudenek (goi-mailako arte- edo musika-irakaskuntzakoak izan ezik), nazioarteko mugikortasun-programa batean parte hartzen dutenek eta lehenago egindako deialdietan laguntza eskuratu ez dutenek.

Gainera, Nafarroakoak izan edo Foru Komunitatean erroldatuta egon beharko dira, gutxienez eskaera egin aurreko bi urteetan. Nafarroan dagoen unibertsitate batean matrikulatuta dauden beste autonomia-erkidego batzuetako ikasleek laguntza eskuratu ahal izango dute, Foru Komunitatean gutxienez bi urtez bizi izan direla egiaztatzen badute.